



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

### III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29  
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

#### GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Euskararen erabilera sustatzeko  
ideologia eta estrategiak D  
ereduko gurasoen hizkuntza  
politika eleaniztunetan**

*Maite Garcia-Ruiz, Ibon Manterola  
eta Ane Ortega*

107-114 or.  
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.01.14>



## Euskararen erabilera sustatzeko ideologia eta estrategiak D ereduko gurasoen hizkuntza politika eleaniztunetan

Garcia-Ruiz, Maite; Manterola, Ibon eta Ortega, Ane  
*Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra, UPV/EHU  
eta ELEBILAB, UPV/EHU  
maite.garciaru@ehu.eus*

### **Laburpena**

Artikulu honen helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguru erdaldun bateko gurasoek hartzen dituzten erabakiak eta ideologiak aztertzea euskara, gaztelania eta ingelesaren ikaskuntzari eta erabilerari dagokionez. Hau da, familien hizkuntza politikak aztertu nahi dira, arreta jarrita horien atzean dauden elementu ideologikoetan eta estrategietan. Ikerketa honek ekarpena egin nahiko luke euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenaren eta eleaniztasunaren esparruan. Izan ere, ideologia eta estrategia horietan gaztelania eta ingelesak duten lekua aztergai da.

Hitz gakoak: familiako hizkuntza politika, eleaniztasuna, gurasoak, ideologiak, estrategiak

### **Abstract**

*The main objective of this article is to examine in a Spanish dominant context in the Basque Autonomous Community, the decisions parents make regarding Basque, Spanish, and English learning and use. Meaning family language policy will be examined, including the ideologies and strategies behind them. This research project would like to contribute to the fields of Basque transmission and multilingualism. In fact, the place or role Spanish and English play in those ideologies and strategies is object of study.*

*Keywords: family language policy, multilingualism, parents, ideologies, strategies*

### **1. Sarrera eta motibazioa**

Hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenean familiaren esparrua lehentasuneko ikerketa esparrua da. Hain zuzen ere, gaur egun familiako hizkuntza politika gisa ezagutzen den ikerketa esparruak indar handia hartu du azken hamarkadan (King et al., 2008; Schwartz eta Verschik, 2013). Familiako hizkuntza politikak (FHP) hizkuntzen erabilerari eta hizkuntza ikaskuntzari buruz gurasoek hartzen dituzten erabakiak ikertzen ditu, erabaki horiei lotutako ideologekin eta estrategiekin batera. Erabaki, ideologia eta estrategia horiek era askotakoak izan daitezke: agerikoak eta gurasoen edo guraso eta haurren artean negoziatuak, negoziatu gabeak edo inplizituak, edo baita bat batekoak ere (Curdt-Christiansen, 2013; Fogle, 2013).

Gobernu edo erakundeen hizkuntza politiken ikerketan bezalaxe, FHPren esparruan hiru dira aztergai nagusiak: ideologiak, estrategiak eta praktikak (King et al., 2008; Spolsky, 2012). Ideologiaren barruan eleaniztasunari buruzko jarrerak, eta hizkuntzen ikaskuntza eta irakaskuntzari buruzko jarrerak sartuko lirake besteak beste. Estrategiek gurasoek familiaren baitako hizkuntzen erabileren kudeaketan hartzen dituzten erabakiei egiten diete erreferentzia, baita hizkuntzen ikaskuntza bideratzeko hartzen dituzten neurriei ere. Adibidez, guraso erdaldunek D ereduak aukeratzea FHPko estrategiatzat har daiteke. Estrategia honen atzean dagoen ideologia da seme-alabak euskara-gaztelania elebidun izatea nahi dutela gurasoek (Amorrortu eta Ortega, 2009). Azken osagaia praktiken da, eta familiaren esparruan egiten diren hizkuntza erabilerak aztertzen eta neurtzen ditu (Nandi, 2018; Smith-Christmas, 2018).

Bost urtero egiten den Inkesta Soziolinguistikokoaren azken datuei (2016) erreparatuta, ikusten da zelan konfigurazio euskalduna duten gurasoen %87,3k euskara transmititzen dietela seme-alabei (soilik euskara edo euskara eta gaztelania). Eta bikote mistoen kasuan, hau da, bat euskalduna, bat erdalduna, %38,7k egiten die euskaraz eta gaztelaniaz seme-alabei (Eusko Jaurlaritza, 2016). Inkestaren datuei erreparatuta, ikus daiteke gurasoen lehen hizkuntzak ere paper garrantzitsu bat betetzen duela. Izan ere, nahiz eta guraso biak euskaldunak izan, batek

erdara badu lehen hizkuntza, %70k transmititzen du euskara bakarrik, eta %6k gaztelania bakarrik transmititzen du. Baina honelako ikerketa kuantitatiboetan ez da emaitza horien arrazoietan sakontzen.

Datuak ez ezik, emaitzak ulertzeko eta euskararen transmisioaren eta erabileraren egoera hobetzeko motibazioarekin hasi zen egitasmo hau.

## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

### 2.1. Aurrekariak

Euskarari buruz badira familiaren esparruan euskararen jarraipena ikertu duten lanak, nahiz eta FHPren izenpean ez agertu (Hernandez, 2015). Kasaresen (2015) lanak, esate baterako, euskara jakin gabe umeak euskaraz hazten dituzten gurasoen ideologiak eta estrategiak erakusten ditu, besteak beste. Halaber, eskolan euskara ikasitako umeek familiaren esparruan euskararen praktika hedatzen dutela ere nabarmentzen du, euskararen jarraipenerako umeen rol aktiboa erdigunean jarriz. Escandonen (2016) lanak, berriz, erakusten du Gasteizko guraso mistoen kasuan (euskara batek bakarrik dakien bikotea), erdaldunek jarrera positiboak daukatela bikoteak etxean seme-alabekin euskara erabiltzearen inguruan. Azkenik, Ikardok (2017) haurrak D eredura daramatzaten Lapurdi kostaldeko guraso erdaldunen ideologiak aztertzen ditu, eta nabarmentzen du guraso hauek euskararen jarraipenaren aldeko jarrera daukatela.

Euskararen mugetatik kanpo, Galizian galizieraren hiztun berrien FHPk aztertu dira. Nandiren (2018) ikerketan ikusten da gurasoek familiaren esparruan galiziera sustatzeko ideologia oso argia daukatela, Galiziako Gobernuaren hizkuntza politikaren kontrako aktibista bihurtzeraino. “Aktibista” ideologia hau gauzatzeko estrategien artean, Nandiren lanetik bi azpimarratu nahi genituzke: bata, haurrak galizierazko eskola pribatuetan eskolatzea; eta bestea, galizieraren erabilera sustatzen duten beste guraso batzuekin batera harreman talde “galizierazaleak” egitea. Nandik erakusten du bi estrategia hauek gurasoei aukera ematen dietela haurren galizieraren erabilera nolabait “zaintzeko”, eta, beraz, haurrak galizieraz sozializatzen.

Hala ere, FHPn gurasoak ez ezik, beste eragile batzuk daude haurren hizkuntza sozializazioan eta Smith Christmas-en (2018) lanean ikusi den bezala, haur bat baino gehiagoko familietan, haurren adinak hizkuntza politikan eragiten du, eta zehazki, seme-alaben hizkuntza jarreretan eta praktiketan. Eskoziako familia batean, amamak gaelikoa irakatsi zien bere hiru seme-alabei, horietako batek, beste 3 seme-alaba izan zituen; nagusiak gaelikoa daki, bigarrenak jarrera positiboa du orokorrean, baina gehienetan ingelesa erabiltzea nahiago du, eta hirugarrenak, aldiz, jarrera negatiboak ditu hizkuntza gutxituarekiko. Ikerketa horretan ikusten den bezala, seme-alaba nagusia hazi ahala, gizartean presentzia handiagoa duen hizkuntza gero eta gehiago erabiltzen da hizkuntza gutxiagotuaren kaltetan, eta seme-alaba nagusiaren erabakiak gazteen hizkuntza jarrerei eta praktikei eragiten die, gazteenek etxean bertan kanpoko hizkuntza etxekoa baino gehiago hitz egiteraino.

Euskararen kasuari dagokionez, Arrue proiektuko ikerketak (Eusko Jaurlaritza, 2013) antzeko ondorioak iradoki ditzake hurrek eskolaren testuinguruan egiten duten hizkuntzen erabileraz. Datuek erakusten dute lehen hezkuntzatik bigarrenera pasa ahala, hurrek gero eta euskara gutxiago, eta gero eta gaztelania gehiago egiten dutela.

Euskara eta gaztelaniaz gain, egitasmo honetan ingelesari dagokion FHPa ere aztertuko dugu. Mundu osoan bezalaxe, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) estatus politikoa eta akademikoa onartzen zaio ingelesari, “nazioarteko” hizkuntza gisa hartzearen ondorioz (Lasagabaster, 2003). Hau dela eta, EAEn ingelesaren hedapena hizkuntza gutxituentzako arrisku modura ere ikusi izan da (Lasagabaster et al., 2014). Kontuak kontu, gaur egun EAeko familietan hizkuntzen transmisioa eta sozializazioa ikertzeko orduan, ez da nahikoa euskara eta gaztelania bakarrik kontuan hartzea, ingelesak daukan rola ere aintzat hartu behar baita. Izan ere, EAeko biztanleen %95entzat ingelesa ikasteak garrantzia handia dauka (Eusko Jaurlaritza, 2017).

Ehuneko hau ia laukoiztu egin da azken 30 urteetan. Azkenik, herritarren %80k uste du ingelesa ondo ikasteko, oso gazte hasi behar dela ikaskuntza prozesua. Ingelesari buruzko ideologiak eta baita ere, oro har, ingelesa-gaztelania-euskara eleaniztasunari buruzko ideologiak nabarmen aldatu dira azken 35 urteotan (Eusko Jaurlaritza, 2017). Egoera eleanitz hau gogoan izanda, ikerketa honetan hiru hizkuntzei dagokien FHP aztertu nahi da.

Hiru hizkuntzei dagokien FHPak aztertuta, lan honek nolabaiteko berrikuntza ekarri nahiko luke EAEko bi hizkuntza ofizialei eta ingelesari buruzko ikerketa soziolinguistikoetara. Atal honetan ikusi dugun moduan, familiako esparruan euskararen jarraipena ikertu izan denean, gehienez ere gaztelania hartu izan da kontuan, euskaraz gain. Aldiz, ez dago ikerketarik euskara, gaztelania eta ingelesa hirurak batera hartzen dituenik, alegia, ikuspuntu eleaniztuna (Gorter eta Cenoz, 2015) jarraituz.

Ikerketa honek aukera emango du datu soziolinguistiko makroek euskara eta gaztelaniaren transmisioaz ematen dituzten argazki orokorrari maila askotako xehetasunak gehitzeko. Inkesta Soziolinguistikoak euskararen eta gaztelaniaren zein frantsesaren transmisio datu kuantitatiboak eskaintzen ditu. Hala ere, motz geratzen dira hizkuntza politikaren, eta zehazki, hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenaren dimentsio mikroagoak ikertzerako orduan (Kasares, 2015) inkestan ez baitira aztertzen transmisio datuen atzean dauden ideologiak. Eta aurretik aipatu ditugun Kasaresen (2015) zein Escandonen (2016) emaitzak gogoan, uste dugu FHParen ikerketa esparruak xehetasun oso interesgarriak eman ditzakela euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenari buruz.

Ingelesaren hedapena ere asko indartu da euskal gizartean, eta, esate baterako, herritarren %52ak atzerriko hizkuntzaren bat daki (Eusko Jaurlaritza, 2017). Aldiz, oraindik ez dago daturik etxeko testuinguruan gurasoek ingelesaren ikaskuntza zergatik eta nola sustatzen duten erakusten duena. Hemendik ondoriozta daiteke euskal gizartearen argazki soziolinguistikoa asko aldatu dela duela hogeita hamar urtekoarekin konparatuta. Aldaketa hau, gainera, esanguratsua ari da izaten euskararen erabilera eta presentzia ahula den inguruetan (Ortega et al., 2016), eta euskara dakien populazioak gorakada handia eman duen moduan, ingelesaren aldeko jarrerak ere indartu egin dira.

## 2.2. Helburuak

Artikulu hau tesi batean oinarrituta dago. Tesia Manterola eta Ortega ikertzaileen zuzendaritzapean gauzatzen ari da Garcia-Ruizek. Momentuan hastapenetan gaude oraindik, baina horren lehenengo faseen emaitzetan zentratuko gara artikulu honetan. Ikerketaren helburu orokorra da familiako hizkuntza politika (FHP) eleaniztuna aztertzea, Getxoko testuinguru soziolinguistikoa, oro har, erdalduna izanik, haurrak D ereduko lehen hezkuntzako 4. mailan (LH4) dituzten familien kasuan. Horretarako, FHPren hiru elementuetan (ideologiak, estrategiak eta praktikak) banatu ditugu ikerketa galderak:

- Gurasoen jarrera eta ideologiei dagokienez:

- Zein dira gurasoen jarrerak euskarari, gaztelaniari eta ingelesari dagokionez? Zein balio egozten dizkiote hizkuntza bakoitzari?

- Nolako ideologiak daukate eleaniztasunaren inguruan? Eta zehazki, nolako ideologiak daukate eskolak sustatzen duen eleaniztasunaren inguruan, bizi diren testuinguru nagusiki erdalduna izanda?

- Gurasoen estrategiei dagokienez:

- Gurasoek nolako estrategiak daukate hurrek hiru hizkuntzetako bakoitza ikas eta erabil dezaten?

- Praktikei dagokienez:

- Estrategia horiek hartuta, zeintzuk dira seme-alaben praktikak? Hau da, gurasoek espero dituzten emaitzak lortzen dituzte estrategia horiekin?

FHPko elementuei zuzenki lotuta doazen galdez gain, beste galdera espezifikoko batzuk ere erantzun nahi dira: batetik, ikertu nahi da ea gurasoen konfigurazio linguistikoen arabera familiako hizkuntza politikan joera ezberdinak dauden, alegia:

- zein antzekotasun eta ezberdintasun daude perfil ezberdineko gurasoen FHP eleaniztunetan, kontuan hartuta gurasoek konfigurazio linguistiko ezberdina daukatela?

Bestetik, gurasoen FHPak seme-alaba desberdinekin aldatzen den ikertu nahi genuke. Kontuan hartuta tesiaren fokua LH4ko ikasleen gurasoengan jarri dugula:

- badago alderik gurasoen FHPetan LH4ko ikaslearen eta beste seme-alabaren kasuan? Politika horiek zertan dira antzekoak eta zertan desberdinak LH4ko ikaslea seme-alaba nagusia edo gaztea denean?

### 2.3. Hipotesiak

Kontuan hartuta Escandonen (2016) artikuluan jarrera positiboak nabarmentzen zirela eta ikerketa honetako seme-alaba guztiak ikastolan daudela eskolarizatuak, aurreikusten da euskararekiko jarrera positiboak aurkitzea. Lasagabaster eta besteren (2014) ikerketan oinarrituta posible izango litzateke gaztelania garrantzitsutzat hartzea. Ingelesari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak (2017) erakusten du oso orokortuta dagoela ingelesaren balioa. Hiru hizkuntzak alderatzerako orduan, ordea, gerta daiteke balio instrumental handiagoa ematea hizkuntza hegemonikoei, gaztelania eta ingelesa, alegia, eta euskarari balio sentimentala (Ortega et al., 2016).

Cenozen (2009) liburuan ateratako emaitzak ikusita, ez litzateke harritzekoa eleaniztasunaren aldeko jarrerak aurkitzea eta “hainbat eta hizkuntza gehiago, hobeto” ikuspuntua presente egotea.

Baliteke ere gurasoek Nandiren (2018) ikerketan topatu ziren estrategiak erabiltzea. Aldez aurretik badakigu D eredura sartu dituztela haien seme-alabak, baina hipotesia da euskara sustatzeko hartu zutela erabaki hori. Espero da guraso profila oso berezi bat aurkitzea ingelesaren mesedetan egiten duena eta bere seme-alaba eskolaz kanpoko ingeleseko klaseetara eramaten duena.

Aipatutako Galiziako ikerketan, gurasoek hizkuntza gutxitua erabiltzeko testuingurua sortu zuten (Nandi, 2018), beraz, aurreikus zitekeen gure parte hartzaileek ere euskara erabiltzeko taldea sortzea, baina hipotesia da Getxoko testuinguru erdaldun makroak eragin handiagoa izango duela eta ez dutela aukera hori aurreikusiko eta, ondorioz, ez dutela praktikan jarriko.

Eusko Jaurlaritzaren (2016) emaitzetan oinarrituta, espero da gurasoen konfigurazioak eragina izatea haien FHPtan, hau da, guraso biak erdaldunak direnean edo bikote mistoen kasuan ere bai, aurreikusten da FHPk ez izatea oso indartsuak edo sendoak euskarari begira.

Ez da aurreikusten FHP desberdinak izan dituztelaren diskurtsoa, baina bai espero dugula praktikak aldatu behar izana egoera desberdin batean daudelako seme-alaba bat baino gehiago dagoenean familian. Izan ere, Smith-Christmasen (2018) artikuluan amamak (hizkuntza gutxituaren mesedetan egiten zuena) ez zuen gaelikoz jarraitzearen estrategia aldatu, baina bere praktika bai egoera eta pertsona ez zelako bera eta iloba txikiak eskatzen zionean ingelesez egiteko, berak ingelesez egiten zuen.

### 3. Ikerketaren muina

Ikerketa honetako parte hartzaileak seme-alabak EAEko eremu erdaldun bateko (Getxo) ikastola batean eskolaratu dituzten gurasoak dira. Zehazki, 9-10 urteko (LH4) haurrek dituzten gurasoak izango dira. Getxon bakarrik %33,28a da euskalduna<sup>1</sup>, eta nahiz eta euskararen ezagutzak gora egin duen azken urteotan (Ortega et. al., 2016), eremu erdalduntzat hartu dugu

---

<sup>1</sup> [http://www.eustat.eus/municipal/datos\\_estadisticos/getxo.html](http://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/getxo.html)

ikerketan honetan. Testuinguru hori aukeratu da 1981tik 2011ra euskaldunen ehunekoak gorakada izan duelako eta euskara biziberritzeko ahaleginak ere egiten ari direlako.

Ikerketa honen metodologia kualitatiboa da nagusiki. Erabili diren teknikak galdetegia eta eztabaida taldeak dira, etorkizunean eztabaida talde gehiago eta elkarrizketa indibidualak egitea planifikatuta dago.

Galdetegia hasieran pasatu zen 4. mailako gurasoen “argazki orokorra” izateko. Galdera itxiak zein irekiak zeuden galdetegan. Itxien artean, Likert galderak eta itemak puntuatzeko galderak zeuden, besteak beste. Likert eskalak aukera anitzeko galderak izaten dira, normalean baieztapen batekiko adostasuna edo desadostasuna adierazteko. Galdera irekietan zergatiak arrazoitzeko eta haien esperientziei buruz idazteko eskatu zitzairen. Haien eta seme-alaben informazioa jasotzeko galdera sozio-demografikoak ere bazeuden.

Eztabaida taldeak galdetegiaren erantzunetan sakontzeko helburuarekin egin dira. Galdetegiak guraso parte hartzaileen FHPei buruzko oinarritzko informazioa ematen digu, eta eztabaida taldeen bidez, aztergaia askoz ere modu sakonagoan ikertzeko aukera dugu.

Taldeak antolatzeko, Nandik (2018) egin bezala, bikotea diren parte-hartzaileen kasuan, aitak edo amak parte-hartuko du eztabaida batean, ez biek. Hori egitea erabaki da, bikotekide baten erantzunak bestearen iritzia ez baldintzatzeko.

Eztabaida taldeak eta elkarrizketa indibidualak oso eraginkorrak eta erabiliak izan dira hizkuntza jarreraren, eta, oro har, etxeko esparruan gertatzen den euskararen belaunaldiz belaunaldiko ikerkuntzan (Ortega et al., 2016; Kasares, 2015; Escandon, 2016). Teknika hau parte-hartzaileen sentimenduetan eta bizipenetan oinarritzen da eta gurasoek haien esperientziei eta iritziei buruz askatasunez hitz egiteko aukera ematen die, baita haien seme-alaben bizipenei eta hizkuntzen ikaskuntzari eta erabilerari buruz hitz egiteko ere.

Moderatzaileak gutxi parte hartu dezake eztabaidan, erdi-gidatu dezake gaiak proposatuz, edo guztiz gida dezake elkarrizketa. Ikerketa honen helburuari begira eta gaiaren konplexutasuna kontutan hartuz, eztabaida erdi-gidatuak egitea erabaki da. Honek parte-hartzaileei askatasuna ematea aurreikusten da, baina gaiari heltzeko aukera ematen digu beharrezkoa denetan.

Momentuz, bi eztabaida talde egin dira. Taldeak osatzeko ez genuen irizpiderik jarri ez zelako profil zehatz bat bilatzen aukerak ez ixteko. Eztabaida bakoitzean 4 guraso zeuden, lehenengoan 3 ama eta aita 1, eta bigarrenetan 4 ama.

### 3.1. Emaitzak

Getxoko ikastola horretan, 75 ikasle zeuden LHko 4.mailan ikerketa hasi zenean. Ikasle horien guztien gurasoei bidali zitzairen galdetegia, hau da, 140-150 gurasok jaso zuten. 41 erantzun jaso ziren euskaraz eta 10 gaztelaniaz, totalen, 51 parte hartzaile (%34-36ko parte-hartzea). 40 familien erantzunak jaso ziren, beraz, familien %53ren emaitzak daude. Borondatezko lan hori egin zutenen artean 4 pertsonako bi talde sortu genituen, hau da, momentuz, 8 gurasok parte hartu dute eztabaida taldeetan.

Galdetegiaren lortutako datuen artean perfil nahikoa homogeneoa ikusten da: guraso gehienek jarrera positiboak edota proaktiboak dituzte euskararekiko. Oso puntako jarrera proaktiboak erakutsi dituzten gurasoek familiaren baitan euskara sustatzeko estrategia berriak ezagutzeko nahia adierazi dute, eta horrek egoera hobetzeko nahia iradokitzen du. Guraso erdaldun gehienek “eroso” edo “pozik” daudela adierazi dute haien seme-alabak D eremuan egoteaz, eta haurrek euskaraz jakingo duten ziurtasuna erakutsi dute. Guraso euskaldunek, aldiz, gaztelaniaren presentzia handituz doan kezka aipatu dute behin eta berri. Galdetegiko emaitza hau eztabaida taldean ere azpimarratu zen hainbat alditan.

Galdetegian hiru hizkuntzei buruz galdetu bazaie ere, joera orokorra antzeman dugu ingelesa “ekiditeko”, eta bere lekuan, euskara aipatzeko. Hau da, ingelesari buruz zuzenean galdetuz gero, horri buruz hitz egiten dute, baina orokorrean hizkuntzei buruz galdetzerakoan, guraso askok ingelesa ahaztu dute. Esate baterako, eskolaz kanpoko ekintzetan, LH 4ko guraso parte-

hartzaileen ia erdiak esan du seme-alabak ingelesa egiten duela, baina askok ez du aipatu hori ingelesa sustatzeko estrategia denik. Hala ere, aipatzekoa da guraso erdaldunek gehiago aipatu dutela ingelesa guraso euskaldunek baino, eta, batez ere, hizkuntzen ikaskuntza sustatzeko estrategien atalean. Puntu honi dagokionez, eztabaida taldeetan momentuz ez dugu gurasoen profil garbi bat antzeman ingelesaren alde edo kontra egiten duenik.

Aipatzekoak dira galdetegitik ateratako eleaniztasunari buruzko datuak; nahiz eta gaitasun desberdinak izan, guraso guztiek dakite hiru hizkuntza gutxienez: euskara, gaztelania eta ingelesa. Hau da, guraso guztiak dira eleaniztunak. Hala ere, eztabaida taldeetan ikusi zen ez dagoela bere LH4ko seme-alaba eleaniztuna dela uste duen gurasorik ikastolan 3 hizkuntzak ikasten dituen arren.

Emaitzen artean, aurrekarietan aipatutako joera baten kontrakoa aurkitu da gure gurasoetan: guraso gehienek gaztelania dute ama hizkuntza, eta hala ere, %70a euskara erabiltzen du haien seme-alabekin.

#### 4. Ondorioak

Datuetan oinarrituta, esan daiteke espero ziren emaitza batzuk aurkitu direla, baina baita espero ez ziren batzuk ere, eta horietan guztietan sakontzeko beharra ikusten dugu oraindik ere esperientzia eta bizipen berriak jasotzen ditugulako guraso desberdinetatik.

Alde batetik, eta lehenengo galderari erantzuten, esan daiteke guraso guztiek, oro har, jarrera positiboak dituztela hizkuntzekiko. Guraso batzuk asko markatu dute euskarak duen balioa haientzat. Hemen guraso batek galdetegian idatzitakoa: *“euskara maitatzen ikasi dute. Euren hizkuntza bakarra da. Harro nago euren ametsak euskaraz direlako”*. Balio instrumentala ere oso nabarmen dago bigarren eztabaida taldeko guraso honetan: *“(el título) te lo van a pedir también en Eroski”*.

Bestetik, eleaniztasunari dagokionez, eta aurreko puntuari lotuta ere bai, balio handia ematen diete hizkuntzei, eta eleaniztuna izatearen garrantzia azpimarratu zen bereziki bigarren eztabaida taldean: *“es importante saber idiomas para nivel de ocio, para viajar...”*, baina bi ahoko ezpata izan da eleaniztasunaren gaia utopiatzat hartzen dutelako: *“el trilingüismo entonces no es real”* eta *“yo no creo en el trilingüismo”*.

Estrategien aldetik, frustrazioaren diskursoa atera da gehienbat euskarari lotuta. Bazirudien guraso gehienek estragiek porrot egin dutela haien seme-alabekin eta honela espresatu dute lehenengo eztabaida taldeko gurasoek: *“La oíamos sola hablando en castellano. “Euskaraz, etxean euskaraz hitz egiten da!” rollo caos así”* eta *“Hablamos en euskara, en casa, en euskara, nos levantamos, euskara, desayunamos, euskara... coche en euskara, bajan del coche, pasan la verja de ikastola, y se pasan al castellano. A mí eso me impactó mucho”*. Orduan, badute euskara erabiltzeko estrategia, baina ez dituzte estrategia nahikoak haiek nahi duten FHP aurrera eramateko. Esate baterako, euskaraz hitz egiteko talderik ez dute “eraiki” eta ikusten dute zelan ikastolako lagunekin gaztelaniaz egiten duten haien seme-alabek. Horregatik dute frustrazioaren diskurtsoa.

Ingelesaren aldetik, bi jarrera aurkitu dira: guraso profil bat ez dago ingelesaren ikaskuntzaz kezkatuta eta ez du estrategia kontzienterik erabiltzen edo ezartzen ingelesaren mesedetan, beste profil batek uste du ingelesa garrantzitsua dela eta gaztetan hastea beharrezkoa dela *“(hay que meter el inglés antes) si realmente quieres el trilingüe”*.

Gurasoen konfigurazioari dagokionez, ez da alde handirik ikusi. Bikote euskaldunek frustrazio handiagoa erakutsi dute, baina estrategien aldetik, gehiengoak ikastola aukeratu zuen euskararengatik, eta bikote euskaldunak desberdintzen dira etxeko eremua euskalduntzea “lortu” dutelako, baina seme-alabek gero eta gehiago sartzen dute gaztelania, beraz, praktiken aldetik eta umeen euskara erabileraren aldetik, ez dago desberdintasun handirik gurasoen konfigurazioan.

Guraso guztiak adierazi zuten ez zituztela haien FHPk aldatu, baina batzuk bai onartu zutela ezin izan zituztela haien estrategiak “inposatu” seme-alaba nagusiarekin txikiari arreta gehiago eskaintzen zirelako, edo familiako egoeratik ezin zirelako horretan zentratu. Beraz, adin batera ailegatzean, seme-alaba nagusiak kontrola hartzen du bere hizkuntza praktiketan eta horrek eragiten dio luzean bere neba-arreba txikiari.

Argi dago emaitza gehiago jasoko direla eta ziurrenik ondorioetan gehiago gehitzeko aukera egongo dela ikerketa aurrera joan ahala. Izan ere, elkarrizketa indibidualekin datuetan gehiago sakontzeko aukera egongo da. Baita aurretik agertu ez diren gai eta galdera berriak aztertzeko ere.

Horrez gain, FHPren eremua hazten eta gero eta gehiago ikertzen ari den gaia izanik, honi buruzko ezagutza handiagoa izango dugu datuak konparatzeko eta ondorio zehatzagoak ateratzeko.

## 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Tesiaren bigarren urtea izanda, ikerketaren hurrengo pausoa elkarrizketa indibidualak egitea da. Etorkizun luzera begira, ordea, testuinguru eta herri desberdinetako FHPak aztertzea ikuspuntu eleanizetik ikerketa lerro posible bat liteke.

Egitasmo honek ikerketa kuantitatiboetan lortutako datuak osatzen dituela esan daiteke, baina lan handia dago egiteke FHPren eremuan, batez ere, datu kualitatiboek dagokionez eta ikuspuntu eleanitza kontutan hartuta.

## 6. Erreferentziak

- Amorrrortu, E., eta Ortega, A. (2009): “Zergatik eskolaratzen dituzte gurasoek seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan?” *Euskera*, 54, 2–1.
- Cenoz, J. (2009): *Towards Multilingual Education. Basque Educational Research from an International Perspective*. Multilingual Matters, Bristol.
- Curdt-Christiansen, X. L. (2013): “Family language policy: sociopolitical reality versus linguistic continuity”, *Language Policy*, 12 (1), 1-6. [<https://doi.org/10.1007/s10993-012-9269-0>]
- Escandon, A. (2016): “Vitoria-Gasteizko gurasoekin euskararen transmisioaz eginiko ikerketa kualitatiboaren ondorio txostena”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 98, 128-144.
- Eusko Jaurlaritzak, (2013): *Ikasleak hiztun: 2011ko Arrue Proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- , (2016): *VI. Inkesta Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- , (2017): *Atzerriko Hizkuntzen Ezagupena eta Ikasketa*. Eusko Jaurlaritzak, Prospekzio Soziologikoen Gabinetea, Vitoria-Gasteiz.
- Fogle, L. W. (2013): “Family language policy from the children’s point of view: Bilingualism in place and time”, in M. Schwartz & A. Verschik (arg.), *Successful Family Language Policy*, Dordrecht, Springer, Netherlands, 177-200.
- Gorter, D. eta Cenoz, J. (2015): “Translanguaging and linguistic landscapes”, *Linguistic Landscape*, 1 (1), 54-74. [<https://doi.org/10.1075/ll.1.1-2.04gor>]
- Hernandez, J. M. (2015): “Familia hizkuntz politika: transmisioa ulertzeko eredu berri baten bila”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 94 (1), 47-62.
- Ikardo, U. (2017): “Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena Lapurdiko kostaldean”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 105 (4), 11-45.
- Kasares, P. (2015): “Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 94 (1), 13-45.
- King, K. A., Fogle, L., eta Logan-Terry, A. (2008): “Family Language Policy”, *Language and Linguistics Compass*, 2 (5), 907-922. [<https://doi.org/10.1111/j.1749-818X.2008.00076.x>]
- Lasagabaster, D. (2003): *Trilingüismo en la enseñanza. Actitudes hacia la lengua minoritaria, la mayoritaria y la extranjera*. Milenio Educación, Lleida.



- Lasagabaster, D., Doiz, A. eta Sierra, J. M. (2014): *Motivation and foreign language learning. From theory to practice*. John Benjamins Publishing Company, Amsterdam Philadelphia.
- Nandi, A. (2018): “Parents as stakeholders: Language management in urban Galician homes”, *Multilingua*, 37 (2), 201-223. [<https://doi.org/10.1515/multi-2017-0020>]
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. eta Urla, J. (2016): *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bizkailab / Deustuko Unibertsitatea, Bilbao.
- Schwartz, M. eta Verschik, A. (2013): *Successful Family Language Policy. Parents, Children and Educators in Interaction*. Springer.
- Smith-Christmas, C. (2018): “‘One Cas, Two Cas’: Exploring the affective dimensions of family language policy”, *Multilingua*, 37 (2), 131-152. [<https://doi.org/10.1515/multi-2017-0018>]
- Spolsky, B. (2012): “Family language policy – the critical domain”, *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 33 (1), 3-11. [<https://doi.org/10.1080/01434632.2011.638072>]

## 7. Eskerrak eta oharrak

Artikulu honetan jasotakoa 2017an hasitako doktorego tesiko lehenengo bi atalen materiala da. Tesia Ibon Manterolaren (UPV/EHU) eta Ane Ortegaren (BAM) zuzendaritzapean gauzatzen ari naiz. ELEBILAB ikertalde osoari eman nahi dizkiot eskerrak haien laguntzarengatik eta haiekin ikasitako guztiarengatik. Baita ere, eskerrik asko ikastolari eta ikastolako gurasoei ere ikerketan parte hartzeagatik eta haien onena saiatzeagatik haien seme-alaben hizkuntza sozializaziorako.